



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

2. unitatea: GURE HERRIAREN ERALDAKETA

Sarrera

Gure unitateko Kattalin protagonistak pentsatzen duen bezala, 'Ordizia: kilo bat istorio' lehen atalean teleskopioa erabili genuen gure herriaren historia zaharrari begiratzeko, urrutira jotzeko; 'Ordizia: gure herriaren eraldaketa' honetan, ordea, prismatikoak erabili ditugu horren zaharrak ez diren kontuak berritzeko.

Historiako, tradizioko esaera zahar batetik abiatu gara horretarako: 'Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu', eta, egia esan, esaerak orain arteko bi aleetarako balio dezake: gure arbasoen historiak, eskarmentuak, erabakiak edota bizipenak ezagutzeak lagundu egin beharko liguke geure burua hobeto ezagutzen, komunitate batean egokitzen, eta denontzako etorkizuna prestatzen.

Hala, bada, mapan ezagutu egingo dugu non gauden, zein itxura dugun, gure herria nola kokatuta dagoen, baina batez ere hiribildu zaharretik gaur egungo herri zabala izatera nola pasatu den ikusiko dugu: auzoak eta komunikabideak nola sortu diren, industrializazioa nola nagusitu zen, horrek zenbat jende erakarri zuen eta, bide batez, naturan zer nolako kaltea eragin zuen; eta, kalteez ari garela, 1936ko gerra ezin aipatu gabe utzi... Baina hori guztia, modu orokorrean ez ezik, modu partikularrean ere ezagutuko dugu: bai Kattalin eta haren familiaren bitartez, bai Lutxi emagina bezalako pertsona zehatzen bitartez.

Asmo horrexetan sakondu nahi genuke, eta, Kattalinen hitzei berriro ere helduta, teleskopioaren eta prismatikoaren ondotik, hirugarren atalean geronen begiak baino ez genituzke beharko —edo betaurrekoak asko jota—, hau da, helburua oraingo historiari erreparatzea izango da, orainaldiari kasu egitea.

Unitate honen erabilerari dagokionez, ikasleentzako dinamikoa eta irakasleentzako malgua izan nahi du. Horregatik, irakasleei zuzendutako gidan proposamen ugari egiten dira, unitatean jasotzen direnekin osagarri edota alternatibo izan daitezkeenak. Horien



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

lanketa laguntzeko, informazio osagarria eskaintzen da webgunean; baita jarduerak modu interaktiboan lantzeko tresnak ere. Gainera, eskolatik kanpo atera eta haurrek beraien ingurua behatu eta ikertu dezaten bultzatu nahi da; parte-hartze soziala garatzea; informazioa bildu, ordenatu eta komunikatzea...

Unitatearen helburu nagusiak:

- X Ikasleek, Ordiziak denboraren poderioz izan duen aldaketa eta eraldaketa hautematea eta honen aurrean hausnarketa egitea: zer, noiz, nola eta zergatik galderei modu egokian erantzuteko gaitasuna lortuz.
- X Gerraren zergatia eta honek sortutako ondorioen inguruko hausnarketa egitea.
- X Ordiziako auzoak, baserriak eta ibai eta errekek beren izenez ezagutzea.
- X Ordiziarekin zerikusia duten ipuin, istorio eta argazkiekin gozatzea.
- X Dagoneko hilda dauden, baina herrian izan duten garrantziagatik ospetsuak izan diren zenbait pertsona ezagutaraztea.
- X Herriko planoan zenbait elementu identifikatzea: baserriak, errekek, eta zerbitzuak esaterako.
- X Gure ikasleak baserri mundura hurbiltzea eta bide batez, lanabesen izenak, abereak edota baserriko lanak gertutik gertura ezagutzea.
- X Informazioa lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio iturri desberdinetara jotzea: komunikazio-teknologiak, herriko jendea, testu idatziak, grabazioak...
- X Iturri desberdinetatik jasotako informazio hori modu egokian antolatu eta, ahoz nahiz idatziz, era ulergarrian adierazteko gai izatea.
- X Euskalkia ezagutzea eta honen adierazpide nagusiak erabiltzen trebatzea; hiztegia, esaerak, espresioak ...

Unitateko jardueren azalpena

Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu.

Ikasleei esaera honen esanahia zein ote den galdetuko diegu. Esaldiarekin batera azaltzen den irudiaren inguruan ere hitz egiten jarriko ditugu: euskal tradizioa, gaur egun inguruan ditugun kultura desberdinen tradizioekin aberastua, herria munduari eta etorkizunera irekia, baina iraganeko irakaspenarekin, eta abar. (Liburuxkako 1. orrialdea)



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

KAIXO BERRIRO!

Bigarren unitate honetako protagonista berriro ere Kattalin izango da; hau da, aurreko unitateko neskato ordiziar bera. Honek aurreko unitatean ikasi eta ikusitakoak laburbilduko dizkigu eta hurrengorako bidean jarriko gaitu galdera hau eginez: **Berriro ere animatuko al zarete nirekin historian atzera egiten?**

Kattalinek zenbait argazki eskainiko dizkigu unitatean landuko diren gai nagusien aurrerapena egin nahian. Ikasleak aurreikuspenak egiten jarriko ditugu.

JARDUERA: *Baietz asmatu!*

Sei argazki hauek ikusita, zeintzuk dira unitate honetan landuko ditugun gai nagusiak?

SOLUZIOAK:

- X Ordiziako populazioa.*
- X Oiangu parkea.*
- X Baserrien izenak eta baserriko lanak.*
- X Auzoen izenak eta bertan dauden gauzak.*
- X Ori ibaia, inguruko errekek eta animaliak.*
- X Herriko zerbitzuak.*

Liburuxkako 2. eta 3. orrialdeak

IPUINA

Aitona Peru eta Kattalin lehenaldiaren zurrunbilan

Ikasleek Patxi Zubizarretaren ipuina irakurri eta entzungo dute. Ipuin honetan aitona Peru eta Kattalin kontu-kontari ari dira eta bertan aitona bere bilobatxoari Ordizia bere haurtzaro eta



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

gazte garaitik gaur egunera arte nola aldatu den azalduko dio, eta bertan gauza harrigarri asko kontatuko dizkio.

Ipuina adi-adi irakurtzeko eskatuko diegu ikasleei eta bertan azpimarratzeko aitona Kattalini kontatutako gauza guztietatik harrigarriena iruditu zaiena. Honen inguruan ikasleak hitz egiten jarri nahi ditugu. Behin hau eginda, ipuina ilustratu gabe dagoela esango diegu eta beraiek jarriko ditugu lan horretan. Ondoren marrazki guztiekin erakusketa egin daiteke.

JARDUERA: Marraztu. Marraztu orri zuri batean ipuin honek iradokitzen dizuna.

Liburuxkako 4. eta 5. orrialdeak

PROPOSAMENA: *Webgunean dago.*

Webgunean ipuin honen edukia lantzeko zenbait ariketa daude ikasleek ipuina behar bezala ulertu duten jakiteko. Adibidez:

- X Ipuineko zenbait esaldi egia ala gezurra diren esan beharko dute.*
- X Zenbait espresio eta esaldiren esanahia ulertu beharko dute.*

1- GERTAERA NAGUSIAK

DABILEN HARRIA, DABILEN HERRIA

Jarduera honen helburua Ordiziak XIX. eta XX. mendeetan izandako aldaketa nabarmenenak ikasleei jakinaraztea da. Horretarako Kattalinek ondoko galdera egingo digu: 'Gogoratzen al duzu nolakoa zen Ordizia Erdi Aroan? Oraingoa, berriz, zein desberdina den, ezta? Gure herria etengabe ari da aldatzen. Agian, zuk ez dituzu aldaketa asko nabaritu, baina zure guraso eta aitona-amonek seguru baietz. Mendetan iraundako hiribildua suntsitu egin zen, eta gizakiak naturguneak



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

bereganatu zituen. Industrializazioarekin batera herria alde guztietara zabaldu zen'.

Ikasleek testuak irakurriko dituzte eta honen edukia kontuan hartuta, testu bakoitzak zein argazkirekin duen lotura pentsatu beharko dute. Behin hori eginda, urteetan erreparatzeko eta gertaera zaharretik berrienera ordenatzeko eskatuko diegu, zenbakia testuko laukitxo zurian jarritz.

1. 1850: Errepide berriak.
2. 1868: Trena etorri zen.
3. 1894: Arboleda.
4. 1904: Euskal Jaiak
5. 1925: Plaza estalia.
6. 1927: Herri Antzokia.

Bukatzeo, zenbaki bera jarriko dute testuarekin zerikusia duen argazkian.

*JARDUERA: **Ordenean eman.** Hona hemen gure herriaren eraldaketan eta bizimoduan eragina izan duten zenbait gertaera. Konturatzen bazara, nahastuta daude kronologikoki. Lotu bakoitzari argazkia, eta ordenean jarri (testu eta argazki bakoitzari zenbaki egokia idatziz)*

Liburuxkako 6. eta 7 orrialdeak

PROPOSAMENA: Webgunean dago

Herriko zenbait toki esanguratsu sortu zen urtearekin lotu beharko dute ikasleek: Majori kiroldegia, Jakintza ikastola, Urdaneta ikastetxea... Behin hau egindakoan, beraiei bururatutako beste leku batzuk zein urtetan sortu ziren ikertzeko eskatuko diegu (galdetuz, interneten begiratzuz...), ondoren beste ikaskide batzuei galdetzeko.



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

1936: GERRA ETORRI ZEN... ETA GERRAREKIN... SUFRIMENDUA

Hala ere, XX. mendeko gertaera gogorrena zalantzarik gabe 1936ko Gerra Zibila izan zen. Ikasleak gerraren inguruko hausnarketa egiten jarriko ditugu. Horretarako, galderak, argazkiak, irudiak, Iñaki Egañaren *1936ko Gerra haurreki kontatua* liburuxkaren pasartea eta Picassoren *Guernica* obra ezaguna ere izango dute.

Aitona Peruk hauxe kontatu dio Kattalini eta Kattalin aho zabalik geratu da kontu hauek entzutean, berak ez baitu holako ezertxo ere ezagutu:

1936ko uztailaren 29an soldadu frankistak Ordizian sartu ziren. Fusilez, pistolaz eta ehizako eskopetaz hornituta zeuden, eta metrailadore bat eta mortero bat zituzten. Egun hartatik aurrera, urte gogorrak bizi izan ziren Ordizian bezala Euskal Herri osoan ere.

JARDUERA: Galderak erantzun: *Zuk dakizunaren edo entzun duzunaren arabera, ze hitzekin lotuko zenuke gerra? Gerrak urrutiko edo aspaldiko kontuak direla iruditzen zaigu askotan, baina zure aitona-amonek bizi izan dituzte gerraren ondorio latzak. Entzun al diezu zerbait? 1936ko gerraren ondorioz, zure adineko neska-mutiko asko beste herrialde batzuetara bidali ziotuzten, askotan bakarrik. Badakizu nora? Badakizu zergatik?*

Liburuxkako 8. orrialdea

JARDUERA: Zer gertatu zen Gernikan? *Gernikari buruzko pasarte bat irakurri, irudia aztertu eta horri buruz hitz egin.*

Liburuxkako 9. orrialdea

JARDUERA: Picassoren Guernica *Picassoren Guernica obra aztertu eta bertan ikusten dutena zer izan daitekeen adierazi.*

Liburuxkako 9. orrialdea



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

2- HERRIAREN KOKALEKUA ETA INGURUA

ORDIZIA: ORIA ERTZEKO HERRIA

Gipuzkoako lurraldean dago Ordizia, Goierriko eskualdean eta Oria ibaiaren ibarrean. Kokalekuak eta gertaera historikoek eman diote gaur egun duen itxura. Ibai horren bazterrean egoteak — mendi artean, baina ongi komunikaturik— eta hiri gisa izan duen jatorriak nortasun berezia eman diote herriari.

Hiriguneak eta baso, zelai, soro, baserri eta erreka batzuek osatzen dute Ordizia. Udalerria luzanga da formaz, iparraldetik hegoalderantz doa eta 5,7 kilometro karratuko azalera du. Gezurra badirudi ere, Goierriko txikienetako bat da, izan ere Arama eta Alzaga besterik ez dira Ordizia baino txikiagoak txikiagoak.

Hemen proposatzen diren jardueren helburua da ikasleei jakinaraztea: Ordizia Goierriko eskualdea osatzen duten 18 herrietako bat dela. Goierri, berriz, Gipuzkoako eskualdea dela eta azken hau, berriz, Euskal Herriko probintzietako bat dela.

Hau ikusi ahal izateko hiru mapa izango dituzte ikasleek: Euskal Herrikoa, Gipuzkoakoa eta Goierrikoa eta hirurak osatu beharko dituzte.

JARDUERAK: Zein da zein? Hemen hiru mapa dituzu: Euskal Herrikoa, Gipuzkoakoa eta Goierrikoa.

Osatu mapak: Euskal Herrikoan jar itzazu probintzia guztien izenak.

Gipuzkoan identifika ezazu Goierri eskualdea.

Eta Goierrikoan, berriz, zein da Ordizia?

Ezetz asmatu! Ba al dakizu zein herrik osatzen duten Goierriko eskualdea? Azpimarra itzazu. Zerrenda hauetako lau herri ez daude Goierriin, zeintzuk ote dira?

Liburuxkako 10. eta 11. Orrialdeak

SOLUZIOA: Andoain, Legazpi, Tolosa, Zumarraga



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

IPUINA

Ardia eta amuarraina

Aurreko ipuinean aitona Peruren hitzetatik jakin dugu Ordizia zenbat aldatu den urteetan barrena. Oraingo honetan, berriz, Bertan Goxo ardiaren eta Mariarats errekan bizi izan den eta orain, berriro ere, Oria ibaiko uretan bizi den amuarrainaren ikuspegitik gure paisaiak (berdeguneen galera, ibaiko uraren kutsadura...) izan duen bilakaera ezagutuko dugu.

Bi animaliaren arteko elkarrizketa oso polita da eta ikasleei ziurrenik asko gustatuko zaie. Ez da oso luzea eta ozen irakurrarazi diezaiekegu hiruak jarrita (Kattalin, ardia eta amuarraina). Entzuteko aukera era badute.

Ipuina ondoen zein irudik ilustratzen duen aurkitzea da hemen proposatzen dugun jarduera. Horretarako arreta handiz irakurtzeko eskatuko diegu, lau irudietan azaltzen baitira ipuineko protagonistak. Baina Non? Nola? Zergatik? Erantzunak ondo arrazoitzeko eskatuko diegu.

JARDUERA: Ilustrazio bila. Lau irudi hauetatik zeinek ilustratzen du ondoen irakurri duzun ipuina? Zergatik? Zerbait falta al da bertan?

Liburuxkako 12. eta 13. orrialdeak

GURE IBAI ETA ERREKAK

Ordiziatik pasatzen den ibaia Oria bada ere, badira beste zenbait erreka Oriako uretan hiltzen direnak: San Joan, Amundarain, Senpere eta Mariarats. Erreka hauek Ordizia eta inguruko herrien arteko muga dira: Itsasondo, Arama, Zaldibia, Lazkao eta Beasain artekoa, hain zuzen.

Jarduera honen helburua, batetik, Oria ibaiaren garrantzia eta honen ibilbidea ikastea da eta, bestetik, inguruko erreken izenak ezagutzea. Askok eta askok ez baitaki erreka horiek badutela izena eta izana.

Amundarain erreka garrantzia bereziki aipatu nahi dugu, inguruan, desagertzeko zorian dagoen



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

bisoi europarra ikusi izan delako. Horrexegatik babestutako eremua dela adieraziko diegu ikasleei. Bide batez, bisoi europarrari eta honen ezaugarriei buruz hitz egin dezakegu.

Ibai eta erreketako urak garbi mantentzearen garrantziaz ere hitz egingo dugu; eta horretarako ur-araztegien egitekoa zein den azalduko diegu ikasleei.

Uholdeak errekek gainezka egitearen ondorio direla adieraziko diegu ikasleei. Ordizian gertatutako uholdeen inguruko testigantzak jasotzen ahaleginduko gara batari eta besterari galdetuz.

JARDUERAK: Kokatu. Askotan, herriek elkarrekin muga egiteko, errekatxo batzuk nahikoa dira. Koka itzazu plano honetan hemen deskribatutakoak.

Oriaren ibilbidea

Oria da gur e ibai nagusia. Non du iturburua? Zein herritatik pasatzen da? Non itsasoratzen da? Zenbat kilometroko luzera du?

Liburuxkako 14. orrialdea

JARDUERA: Okerrak zuzendu. Hona hemen bisoi europarrari buruzko hainbat datu. Bere itxura, ohiturak, habitata eta elikadurari buruzkoak dira. Denak ez dira, ordea, zuzenak. Azpimarra itzazu okerrak.

Liburuxkako 15. orrialdea

JARDUERA. Zer da ur-araztegia? Ba al dakizu zer den ur-araztegia? Aurkitu informazioa eta idatzi hemen.

Liburuxkako 16. orrialdea



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

JARDUERA: Uholdeen zergatia. Ordizian izan ditugu uholdeak: aipagarrienak 1953 eta 1983koak izan ziren. Zergatik gertatzen ote dira, ordea? Ba al dakizu Ordizian non egin izan duen urak gainezka?

Liburuxkako 16. orrialdea

3- LANDA MUNDUA

BASERRIAK

Ordizia ez da inoiz baserri kopuru handiko herria izan. Batzuk desagertu egin diren arren, hauek egondako orubeetan baserriaren izeneko etxaldeak sortu dira: Majori eta Altamira esaterako.

Beste batzuek, ordea, berritu egin dituzte eta erabat galdu dute baserri itxura; Sagastizabal edo Potxoenea izenez ezagunagoa den etxeak eta Aretak, adibidez.

Gaur egun, nekazaritza jardueretan aritzen diren hamar bat baserri besterik ez ditugu.

Ikasleek herriko baserriak ezagutzeko aukera izango dute. Horretarako, 17. orrialdean azaltzen diren baserrien izenetan, argazkietan eta hauei buruzko informaziotxoan erreparatuko dute eta taldeka honen inguruan hitz egiten arituko dira: ea ezagutzen dituzten, zein bizi ote den bertan...

Gure ikasleek baserri mundua gertutik ezagutzeko parada ere izango dute eta hala, baserrian egin ohi diren lanak ikasiko dituzte, baita lanerako erabiltzen diren lanabesen izenak ere. Ezin ahaztu animalien izenak eta bertako arrazak ere.

JARDUERA: Herriko baserriak ezagutarazi

Liburuxkako 17. orrialdea



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

*PROPOSAMENA: Webgunean dago
Kokatu baserriak planoan*

Irakurri duten informazioa kontuan hartuta, baserriak herriko planoan modu egokian kokatzea.

BASERRIKO LANAK

*JARDUERA: **Bikoteak osatu.** Lotu itzazu bi zutabeetako hitzak eta egin bikoteak. Esaldiren bat sortuko bazenu, askoz hobeto.*

Liburuxkako 18. orrialdea

SOLUZIOAK

- X Belarra moztu.*
- X Barazkiak baratzean landatu.*
- X Ukuilua garbitu.*
- X Behiak jetzi.*
- X Egurra txikitu.*
- X Arrautzak bildu.*
- X Artoa erein.*
- X Garia eho.*

JARDUERA: Letra zopa. Baserrian lan egiteko lanabes egokiak behar izaten dira. Ea zenbat aurkitzen dituzun izki zopa honetan. Bide batez, bakoitza zertarako erabiltzen den esan dezatela.

Liburuxkako 18. orrialdea



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

SOLUZIOAK: Sardea, eskuarea, aitzurra, pala, laia, gurdia, sega.

BASERRIKO ANIMALIAK

JARDUERA: Familiak osatu. Gure baserrietan animalia dezente daude. Gehienek arra, eme edo kume izan, izen bera dute: zakurra, katua, astoa... Beste batzuek, ordea, izen desberdina dute. Sailkatuko al zenituzke ondorengoak familiaka? Behia, akerra, zezena, aharia, oilarra, arkumea, ardia, behorra, antxumea, oiloa, txita, txahala, ahuntza, zaldia, moxala.

Liburuxkako 19. orrialdea

SOLUZIOAK:

ARRA	EMEA	KUMEA
zezena	behia	txahala
zaldia	behorra	moxala
oilarra	oiloa	txita
akerra	ahuntza	antxumea
aharia	ardia	arkumea

JARDUERA: Bertako arrazak ezagutu. Betizua eta Pottoka bertako arrazako animaliak ditugu. Ezagutzen al duzu besterik?

Liburuxkako 19. orrialdea

SOLUZIOA: Lumagorri oiloa, Latxa ardia, Euskal txerria, artzain txakurra...



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

PROPOSAMENA: Baserrira bisita. Ordiziako baserriren batera joan eta bertatik bertara ezagutu. Ikasleek aukeratu dezatela baserria, galderak prestatu beharko dituzte baserritarrei egiteko eta, horren ondoren, berriz, baserrian jasotako informazioa eta bertan ateratako argazkiak webgunean zintzilikatu.

OIANGU

Herritik kanpo dagoen parke zoragarria da Oiangu, eta historia handikoa. Hango baserri atarian, Urdaneta bidaiari eta marinela bertan jaio zela adierazten zuen oroitarri batek. San Inazio egunean erromeria handia egin izan zen bertan, eta familiek jatekoak bertara eramanda, gero dantzan aritu izan ziren, iji eta aja. Urteetan, plater tiroa ere egin izan zen bertan.

JARDUERA: Loturak egin. Demagun laukietan hesituta dauden testutxoak goiko irudi ederren argazki-oinak direla. Baina zein zeinena? Idatzi erantzuna lauki bakoitzeko borobil zurian. Ui, baina laukiak gehiago dira argazkiak baino.

Liburuxkako 20. orrialdea

SOLUZIOAK:

X Errakastoaren argazkia falta da.

X Animalien aipamena egiten den testuari dagokion argazkia zein den ez dago zalantzarik. Gainerakoan, ikasleen esku utziko ditugu loturak eta horiek egiteko zertan oinarritu diren edo zertan erreparatu duten azpimarratzea izango da jarduera honen helburu nagusia.

Haurrekin bertara joan daiteke argazkiak ateratzera, baina, lehenago, etxean parkeari buruz dakiten guztia galdetuta (azken urteetan, adibidez, ezagutu izan diren aterpetxe, taberna, jatetxe, edo bestelako parke bat egiteko egon zen proposamena...). Hango ikusmira ere zoragarria da, eta umeei mendien izenei buruz galdetu diezaiekegu: Aizkorri, Usurbe, Txindoki tontorra... Aurreko unitatean Mari Murumenditik Txindokira joaten zela aipatu genuen, eta Aizkorriara. Denen artean haren ibilbidea irudika dezakegu, hodei artean suzko igitai bat ikusten saiatu...



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

JARDUERA: Oiangura joan eta argazkiak atera.

Liburuxkako 21. Orrialdea

JARDUERA: Oiangu ezagutarazi. Paisaiari, zuhaitzei, baserriari, xehetasunei ateratako argazkiekin eta zenbait argibide idatzirekin, egingo al dugu orritxo bat beste herri herri bateko umeei Oiangu ezagutu dezaten? (Gogoratu Gipuzkoa osotik eskolak etorri izan direla bertara). Informazio orri erakargarria egin beharko genuke, Interneten zintzilikatzeko edo turismo bulegoan uzteko. Horretarako, etxean izan ditzakegun argazki zaharrak ere erabil ditzakegu.

Liburuxkako 21. orrialdea

PROPOSAMENA: Bertsoa egin. Ikasleek dagoeneko Oianguri buruzko informazio dezente dute. Oiangu gaitzat hartuta bertso bat sortzeko eskatuko diegu. 1902ko bertsoa azalduko diegu eta bertan betsolariari Oianguk zer ekartzen dioen gogora aipatuko dugu: huntza, Andres Urdaneta, Kuku hotsa...

Oyanguren baserri
untzaz apaindua,
Andres Urdanetaren
seaska dontsua,
zuk dakarzu guregan
Kukun ots goshua
sentiera samur bat
zorionekua.



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

4- ZORIONEKO LANA: GARAI BATEAN ETA GAUR EGUN

INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK

Dagoeneko esan dugu, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, gure herria modernizazio aro berri batean sartu zela eta izugarri aldatu zela. Zenbait lantegi sortu ziren, besteak beste, lau altzari fabrika, zurgintzako eta ebanisteria tailer bar, xaboi fabrika, gaseosa egiteko fabrika, likore fabrika bat, erroskilak egiteko beste lantegitxo bat... Zer gehiago ote zegoen?

*JARDUERA: **Aspaldiko publizitatea.** 1934.eko Santa Ana aldizkarian, garai hartan herrian zeuden hainbat lantegi eta dendaren publizitatea ageri da. Irakurri eta gero, adierazi orduko lantegi eta zerbitzu horietako batzuen izenak, eta bertan zer eskaintzen ote zuten.*

Liburuxkako 22. orrialdea

Garai hartan euskararen presentzia publikoa hutsaren parekoa zen eta ia idatzi guztiak gaztelania hutsean egiten ziren, baina bazegoen euskararekiko kezka nemiño bat aldizkari honetan bertan irakur daitekeen bezala. Ikasleei idatzian erreparatzeko eskatuko diegu eta euskara batuan idatz dezatela.

*JARDUERA: **Zergatik gaztelaniaz?** Honezkerok konturatuko ziren gaztelania hutsean daudela. Zergatik ote daude hala?*

Liburuxkako 22. orrialdea

*JARDUERA: **Euskara batuan idatzi.** Kattalinekin esan dit testu hau ez dagoela ondo idatzita, berak euskaraz beste modu batera idazten duela. Zuk nola idatziko zenuke?*

“Ta aldizkari edo e´rebista onek, ainbat gauza erakusten dizuelarik, ez degu, ixildu nai, ba´ren miñ au: Ez dala guk nai genduken, euskelduna, ez daukala, guk nai genduken, eusko usaya”



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

Liburuxkako 22. orrialdea

LANBIDEAK

Gaur egun, nekazaritza eta abeltzaintza hutsaren parekoak dira Ordizian, biztanleria aktiboaren %0,7 besterik ez baita ari jarduera horietan. Herritar gehienek industria eta zerbitzuetan dihardute lanean. Non eta zertan lan egiten duen gure inguruko jendeak galdetuko diegu ikasleei eta, bide batez, herrian dauden lantegien izenak eta bertan zein lan egiten den jakinaraziko diegu. Ordizian zein zerbitzu dauden eta zer falta den pentsatzen jarriko ditugu.

Ezer baino lehen, ikasleei 1975. urteko eta 2010eko datuak —grafikoetan adieraziak— erakutsiko dizkiegu eta horren inguruko hausnarketa egiteko eskatuko diegu.

Horren ondoren, beraien aitona-amonen eta gurasoen lanbideen inguruan hitz egiten jarriko ditugu taldeka.

JARDUERA: Grafikoak interpretatu.

X Lehen zein sektoretan egiten zuen lan gehiengoak? Eta gaur egun? Zergatik ote da hori?

X Gaur egun garai hartan baino emakume gehiagok egiten du lan etxetik kanpo. Zergatik?

Liburuxkako 23. orrialdea

JARDUERA: Ikertu: taldeka elkarri galderak egin.

X Zein lanbide izan zuten zuen aitona-amonek?

X Zuen gurasoen artean zenbatek egiten du lan industrian, zenbatek zerbitzuetan eta zenbatek nekazaritzan?

Datuak bildu eta eta gogoeta egin taldean. Grafiko bidez azal daitezke bildutako datuak. Horren proposamena zehaztuta webgunean dago.

Liburuxkako 23. orrialdea



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

LANTEGIAK

JARDUERA: Ezagutzen al dituzu?

- X Ordizian lantegi handi bat dugu, Zaldibirako bidean dagoena. Ba al dakizu izena?*
- X Gainerako lantegi gehienak industriaguneetan daude. Lantegi hauek txikiak edo ertainak dira. Ba al dakizu Ordizian zenbat industriagune dauden? Eta zein izen duten? Eta bertan aurkitzen den lantegiren baten izena?*

Liburuxkako 24. orrialdea

ZERBITZUAK

JARDUERA: Kokatu dagokion lekuan. Gure herrian zerbitzu asko ditugu. Honoko hauek kokatuko al zenituzke taulan?

- X Barrena kultur etxea*
- X D'elikatuz Interpretazio Zentroa*
- X Hizkuntza Eskola Ofiziala*
- X Tren geltokia*
- X Elkarateak*
- X San Jose zahar egoitza*
- X Osasun zentroa*
- X Altamirako futbol zelaia*
- X Barrenako parkea*

Zure ustez, zer beste zerbitzu eskaintzen ditu herriak?

Liburuxkako 24. orrialdea



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

PROPOSAMENA: Webgunean dago

Zerbitzuak herriko planoan identifikatzea.

5. HERRIA HANDITU ETA BIZTANLEGOA UGARITU

AUZOAK

XX. mendearen hasieran, lantegiak ugaritzeak biztanle kopurua nabarmen igotzea ekarri zuen; izan ere, jendea lana zegoen lekuetara etortzen zen. Ordiziak hazi beharra zeukan eta jendearentzako etxebizitzak eraiki egin behar. Hortaz, lehen soro eta belardi izandako lekuetan auzoak sortu ziren.

JARDUERA: Argazkiak alderatu. XX. mendeko 60ko hamarkadan populazioaren hazkunde handia gertatu zen eta Ori ibaiaren eskuin aldean zenbait auzo sortu ziren: Altamira, Otegienea eta Buztuntza. Ezagutzen al dituzu auzo horiek? Alderatu bi argazkiak eta adierazi zer duten antzeko eta zer desberdin. Ze desberdintasun dago bi argazkien artean? Ea zenbat aurkitzen dituzun!

OHARRA: Bi argazkien arteko desberdintasunak zehatzago eta hobeto ikusteko jo webgunera eta han egin dezakezue jarduera hau.

Liburuxkako 25. orrialdea

Geroztik, etxe ugari eraki dituzte eta plaza edo kale berriak sortu dira: Arana kalea, Jose Migel Barandiaren plaza, Lukusain plaza, Garagartza plaza, Domingo Unanue plaza... Eta aurrerantzean ere, beharren arabera, gehiago sortuko dira. Zein da zein?

JARDUERA: Zein ote da nire amaren auzoa? Jakina da gure auzoek ez dutela beti gaur egun duten itxura izan, hainbat aldaketaren kokaleku gertatu direla. Horra, esate baterako, Kattalinek amaren auzoari buruz kontatzen diguna. Zein ote da hemen deskribatzen zaigun auzoa?

Liburuxkako 26 eta 27. orrialdeak



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

PROPOSAMENA: *Webgunean daude*

X Ikasle bakoitzak bera bizi den auzoa ondo ezagutzen duen norbait elkarrizketatu beharko du. Galderak prestatu beharko ditu aldez aurretik eta, segidan, erantzunak jasoko ditu.

X Elkarrizketan jasotako informazioarekin eta beraiek dakitenarekin bakoitzak bere auzoaren deskribapena idatziz egin beharko du: nolakoa den, zertan aldatu den, zer egin daitekeen bertan, bertan zein zerbitzu dagoen...

ESPAZIOTIK BEGIRA

Gure herria hazi eta auzo berriak eraiki ziren garaian, espazioa konkistatzen ahalegintzen ari ziren munduko boteretsuenak. Estatu Batuek 1969an. Neil Aldin Armstrongek ipini zituen oinak ilargian estreinekoz. Espazio zabalera atera zen lehena, ordea, Yuri Gagarin izan zen, errusiarra.

JARDUERA: Esaldi ezkutua. Hona hemen Yuri Gagarin, espazio zabalera irtendako lehen gizakia. Lurra orbitatzen ari da Vostok-1 espazio ontzian. Hemen ikusten ari zaren bidaia liluragarri hau 1961eko apirilaren 12an gertatu zen, orain dela 50 urte pasatxo. Leihotik begira, gure planeta aurrean zuela, hitz gogoangarriak esan zituen Yuri Gagarinek. Ea asmatzen duzun esaldia.

Liburuxkako 27. orrialdea

SOLUZIOA:

HAU EDERTASUNA, ZAIN DEZAGUN, SUNTSITU GABE.

Esaldi honen esanahiaren inguruan hitz egiten jarriko ditugu ikasleak, beraien iritzia jasotzeko asmoz.

BIZTANLERIA

Esan dugun bezala, lantegiak ugaritzeak biztanle kopurua nabarmen haztea ekarri zuen. Izan ere, Espainiako hainbat lurraldetatik, Galiziatik, Extremaduratik edo Andaluziatik, jende asko etorri zen



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

lanera. Biztanleriaren hazkundearen gorakada nabarmena garbi ikus daiteke ondoko grafikoan.

JARDUERA:

- X Grafikoa aztertu eta galderak erantzun*
- X Zenbat pertsona bizi ziren Ordizian XIX. mendearen hasieran?*
- X Eta XX. mendearen hasieran?*
- X Eta XXI. mendearen hasieran?*
- X Zure ustez, zein mendetan hazi zen biztanleriaren kopurua nabarmen? Zergatik dela uste duzu?*

Liburuxkako 28. orrialdea

JARDUERA:

- X Grafikoa osatu*

Bukatu ezazu beheko grafikoa ereduari jarraituz. Erabili koadroetako datuak. Ondoren hausnarketa egin:

- X Zein urte tartean hazi da gehien Ordiziako populazioa?*
- X Azken urteetan gertatu dena kontuan hartuta, zein izan ote dira zure ustez populazioaren gorabeheren arrazoiak.*

Liburuxkako 28. orrialdea

PERTSONAIA

Gaur ez bezala, ospitale faltan, ume gehienak etxean jaiotzen ziren emagin baten laguntzarekin.



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

Ordizian, Lutxi entzute handiko emagina izan zen. Baietz zuen etxeko bakarren bat haren laguntzarekin jaioa izan. Galdetu horretaz, eta, bide batez, ea animalia zalea ote zen...

JARDUERA:

X Irakurri eta entzun Lutxiren biografia.

X Erreparatu irudian: Zer adierazi nahi ote du Nicolas Lekuonaren esku irudi honek? Ba al du zerikusirik irakurri duzunarekin?

Liburuxkako 29. orrialdea

PROPOSAMENA: **Webgunean dago.**

XIX. mende bukaeran eta XX. mendean makina bat pertsona jaio zen Ordizian. Horietako askori hil ondoren onartu zaio ospea eta egindako lanaren balioa. Horien artean musikariak, dantzariak, margolariak, aktoreak, kazetariak, idazleak... aurki ditzakegu.

Galdetu ezazu etxean eta egin ezazu zerrenda. Ea zenbat aurkitzen dituzun! Herriko etxeetan bertan, badira oroitarri bat baino gehiago: Lekuona pintorea, Iztueta dantzaria, Gurrutxaga musikaria...

6. GURE EUSKALKIA

Amona Ageda, aitona Peru eta Kattalin azokara jaitsi dira. Plazan ibili eta gero, lehen Oiangu tabernara joaten ziren bezala, Ordiziako beste taberna batera sartu dira gaur.

Edandegiko hormak argazkiz josita daudela ohartu da Kattalin eta ezin izan du harridura ezkatatu. Aitona-amonei haiei buruz galdezka hasi zaie.

JARDUERA:



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

X *Elkarrizketa irakurri eta entzun.*

X *Asmatu*

Bila ezazu argazki zaharren bat, etxean ez bada, interneten. Fotokopiatu, neurrira egokitu, eta propio utzi dugun hutsunean itsatsi ondoren, asma ezazu Kattalin, amona Ageda eta aitona Peruren arteko elkarrizketaren bat.

X *Euskara batuan eman.*

Saia zaitetz elkarrizketa zati horiek euskara batuan ematen.

Liburuxkako 30. orrialdea

LABURBILDUZ:

Ikusi dugunez, Ordizia herriak tokia behar izan zuen zabaltzeko eta hainbat jende hartzeko. Ikasteak, ordea, ez du tokirik behar eta geure burua eta ingurua ezagutzen laguntzen digu. Kattalinek, batzuetan, pentsatzen du lehenengo liburuan teleskopioa erabili genuela Historia zaharrari begiratzeko, urrutira begiratzeko; oraingo honetan prismetikoak erabili ditugula horren zaharrak ez diren kontuak berritzeko; eta hirugarrenean, hirugarrean gure begiak nahikoa izangodira, edo betaurrekoak, izan ere oraingo historiari erreparatuko diogu, orainaldiari.

PROPOSAMENA:

X *Laburbildu.*

Ikasleei, taldeka, unitatean ikasi dutena hainbat esalditan laburbiltzeko eskatuko diegu. Aurreko unitatean proposatu genuen bezalaxe, oraingoan ere, irakurgai eta entzungaietatik jasotako informazioarekin, ateratako argazkiekin, planoren bat sartuz, pertsonaiaren bat aipatuz.... hormirudi bat egin daiteke ikastetxean edota Barrena kultur etxean erakusgai jartzeko.

X *Hurrengo alean zer?*

Hurrengo alean oraingo historiari erreparatuko diogula esan dugu. Ikasleei bertan zein gairen inguruan arituko garen aurreikusteko eskatuko diegu. Zer ikasi nahiko luketen adieraztea ere eska diezaiekegu.



Ordizia - 2. Unitatea: Gure herriaren eraldaketa

BIBLIOGRAFIA

- X Galdós Monfort, Ana: *Villafrancatik Ordiziara, historiaz jositako bidea= DE VILLAFRANCA A ORDIZIA, un camino pleno de historia*; Eusko Ikaskuntzaren ardurapeko argiltapena. Ordiziako Udala, 2008.

- X Santa Ana aldizkariak.

- X Etxaniz Iraola, Ainitze; Zaldúa Ortiz de Guzmán, Irati: *ORDIZIAKO LEKU-IZENAK*. Ordiziako Udala, 2010.

- X Oiangü Parkeko Informazioa: www.oiangü.info/Historia.pdf.

- X www.ordizia.org